



BAKE ETA ADISKIDETZERAKO ELEIZBARRUTIKO BATZORDEAREN AGIRIA

Jardunaldi honeetan, Bizkaiko kristau alkartean terrorismoaren biktima diran guztien Oroimenaren Egunaren ospakizuna bultzatzea da Bake eta adiskidetzarako Bilboko Eleizbarrutiko Batzordearen xedea. Ahalegin horretan, bat egin dau, apaltasun eta erabakitasunez, erakunde publikoakaz eta euskal gizarte osoagaz. Eta testuinguru honetan, hasarre eta atsekabez entzun ditu barne-arazoetako ministro ohi batek ETaren terrorismoaren aurkako «gera zikina» deitutakoren eta, zehatzago, GALEk eragindako terrorismoaren infuruan egin dituan adierazpenak.

Egin daitekezan edo egin beharko litzatekezan balorazino politiko eta juridikoetatik harago, gure ekarpenak etikoa izan gura dau, hau da, ebanjelioaren jakindurian oinarritutako eta Eleizaren Doktrina Sozialak sustatutako balorazinoa egin gura dogu. Ikuspuntu honetatik, nahitaezkoa da aitaturako adierazpen horreek gaitzestea, batez be Oroimenaren Egunean, egundoko kaltea, bidegabekeria eta atsekabea dakartselako biktimei, biktima bihurtzean jasan behar izan eben erabateko bidegabekeari guzti hori gehituz. Gainera, ministro ohiak esandakoak edozein biktimak egia, zuzentasuna eta zelanbaiteko ordaina jasoteko dituan eskubideen autorpenaren aurka doaz. Oinarrizko giza eskubideak eta Zuzenbidezko Estatuak esan gura dauana urratzea kasu guzti-guztietan onartezina bada be, are eta larriagoa da babesteko erantzukizun politiko eta instituzionala dabenek egiten badabe. Ezin dogu ahaztu, gainera, GALEn kontraterrorismoa egon izanak egundoko kalte morala eragin eutsala gizarte osoari eta, batez be, bertatik ETaren terrorismoari emoten ari jakon erantzunari. Eta, azkenik, bereziki kezagarria da, biktimak eragiten dituan indarkeriari zilegitasuna kendu ez ezik, justifikatu egiten dabene iragan mingarriari buruzko kontaketa publikoki onartzea.

Gure aldetik, Oroimenaren egun honetan, kristau alkartetik, biktima guztien oroimen duinaren alde lan egiten jarraitzeko konpromisoa adierazten dogu, gure ustez ezinbesteko osagai dalako gure gizartean bizikidetzak baketsu eta zuzenerako.

Bake eta Adiskidetzarako Eleizbarrutiko Batzordea, 2022.eko azaroaren 10a